

# SEGMENTAZIOA

Edozein zerbitzu edo produktu aurrera eraman dezaketenak bezeroak dira, hau da, udalak, hori dela eta, beraiengan arreta jartzea eta hauek ondo aztertzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Horregatik, atal honetan gure bezero eta erabiltzaileei buruz hitz egingo dugu. Hasteko, gure xede-publikoa azalduko dugu, eta geroago hauen ezaugarri nagusiak. Azkenik, gure zerbitzua zein pertsona motari zuzendu eta honen zergatia emango dugu. Hori guztia egin ostean, gure erabiltzailearen arabera merkatu mota finkatu eta azalduko dugu.

Gure zerbitzua aldaketa klimatikoaren aurkako ekintzak egitean datza, gehien bat plastikoaren erabilerari zuzendua. Horregatik, gure xede-publikoa klima-aldaketaren aurka daudenak eta gure planetaren egoera hobetzeko beraien bizitzan aldaketak egitera prest daudenak edo/eta gai honi buruz gehiago ikasi nahi dutenak dira. Izan ere, gure helburua aurreko arrazoi horiek burutzen laguntzea da.

Kolektibo horrek hainbat ezaugarri komun izango dituzte, gure lana baloratuko dutenak eta probetxuzkoa dela iruditzen zaienak izango dira. Baina adinari dagokionez, edade guztietako erabiltzaileak erakarri nahi ditugu; uste baitugu jorratzen dugun gaia edozein adinetako pertsonentzat garrantzitsua eta interesgarria dela.

**-HAURRAK eta NERABEAK:** Etorkizuna umeak eta gazteak dira, hau da, urte batzuk barru beraiek izango dira mundua kontrolatuko dutenak. Hori dela eta, komenigarria da gaztetxoak kontzientziatzea, gehien bat txikiak diren bitartean. Izan ere, geroz eta lehenago egiten badituzte aldaketak beraien bizitzan, hauek ohitura bihurtzen joango dira; eta helduak direnean inkontzienteki egingo dituzte.

**-HELDUAK:** Heldu askok ez dakite haien denbora librean zer egin, eta aspertuta edo bakarrik sentitzen dira askotan. Sentimendu horiei aurre egiteko helduei bideratutako ekintzak ere egongo dira. Gainera, haurrak askotan helduen ekintzak imitatzeke joera izaten dute. Beraz, helduak erreferente onak izango

lirateke haurrak gauzak aldatzen hasten bultzatzeko. Beraz, ostiraletako saioetan, helduak eta gazteak batera arituko dira dinamika desberdinak egiten.


Gure erabiltzaileak aztertu ondoren, gure merkatua masiboa dela ondorioztatu dugu. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai erabiltzaileen harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daudelako, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituen. Hau da, gure erabiltzaileak antzeko beharra edo helburua duten talde handi batekoak dira (aldaketa klimatikoa aldatzea edota plastikoaren erabilera hobetzea nahi dutenak). Egia da, lehen aipatu bezala, adin multzo bakoitzak bere ekintza zein aldaketa izango dituztela, eta hauek beraien artean ezberdinak izango direla. Baina, denek helburu berera iristeko asmoa dute.

Guk pentsatutako guztia ondo ateratzeko, hainbat pertsoneri gure zerbitzuaren inguruan galdera bera egin diegu beraien iritzia jakiteko. Fidagarria izan dadin, herri eta adin desberdinetako 500 pertsoneri pasa diegu inkesta. Izan ere, jendeak parte hartzeko asmorik izango ez balu, ez genituzke erabiltzaileak edukiko, orduan gure bezeroek, udalek, ez gintuzkete kontratatuko eta ondorioz gure negozioa pikutara joango litzateke.

Honako hauek izan dira jasotako erantzunak:

Zure herrira joango bagina, parte hartuko al zenuke?

■ Ez ■ Bai



Grafikoak adierazten duen bezala, gehiengoak baiezkoa bozkatu du. Hain zuzen ere, 338 baiezko eta 102 ezezko. Beraz, ondoriozta dezakegu gure zerbitzua erabilgarria izango dela eta aurrera jarraitzea bultzatzen gaitu.

